Donostiako Eskolako Agenda 21

2017-2018

# KULTUR ANIZTASUNA



cristinaenea fundazioa

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostia eskola agenda 21

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

UDALSAREA 21

## 2017-2018 IKASTURTEA. KULTURA ANIZTASUNA

13 urte igaro dira Donostiako ikastetxeetan Eskolako Agenda 21 2005-2006 ikasturtean abiarazi genuenetik. Urte guzti hauetan zehar ingurumenaren babesarekin zerikusia duten arloak landu ditugu eta, ikasturte honetan gizarte arloa ere aintzat hartzen duen kultura aniztasunaren gaia aztertzeko aukera izan dugu.

Aurtengoan Donostiako 28 ikastetxek parte hartu dugu programan, 15.000 bat ikasle bilduz. Ikasleez gain, irakasleen eta gainerako eragileen inplikazioa txalotzeko modukoa izan da!

Aldizkari honetan zehar aurten emandako pauso nagusiak deskribatu ditugu eta bide batez, apirilean ospatutako Eskolarteko Foroetan ikasleok adostutako konpromisoak eta Udalari zuzendutako eskaerak aurkeztuko ditugu.

Gustukoa izatea espero dugu!

- ANTIGUA-LUBERRI INSTITUTUA
- ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA
- AXULAR LIZEOA
- BIDEBIETA INSTITUTUA
- CLARET IKASTOLA
- DEUTSCHE SCHULE SAN ALBERTO MAGNO
- EASO POLITEKNIKOA
- ESKIBEL IKASTETXEA
- KATALIN ERAUSO IKASTETXEA
- HERRI-AMETSA IKASTOLA
- INTXAURRONDO IKASTOLA
- LA ANUNCIATA IKASTETXEA
- LA ASUNCIÓN IKASTETXEA
- LA SALLE DONOSTIA IKASTETXEA
- LARRAMENDI IKASTETXEA
- LAUAIZETA IKASTOLA
- MARÍA REINA IKASTETXEA
- MENDIOLA IKASTETXEA
- NTRA. SRA. DE ARANZAZU IKASTETXEA
- ORTZADAR IKASTETXEA
- PRESENTACIÓN DE MARÍA IKASTETXEA
- SAGRADO CORAZON - MUNDAIZ IKASTETXEA
- SAN IGNACIO DE LOIOLA IKASTETXEA
- SAN LUIS-LA SALLE IKASTETXEA
- SAN PATRICIO IKASTETXEA
- SANTA TERESA IKASTETXEA
- USANDIZAGA-PEÑAFLORIDA-AMARA INSTITUTUA
- ZUBIRI-MANTEO INSTITUTUA

## CURSO 2017-2018. DIVERSIDAD CULTURAL

Han transcurrido 13 años desde que iniciamos la Agenda 21 Escolar en los centros escolares de Donostia-San Sebastián. Estos años hemos tratado temas relacionados con la protección ambiental y durante este curso hemos tenido la oportunidad de trabajar la diversidad cultural, que guarda relación también con aspectos sociales.

Este año somos 28 colegios participantes en el programa, implicando a alrededor de 15.000 alumnos y alumnas. Hay que señalar que contamos también con la colaboración del profesorado y otras personas así como entidades de interés.

En la revista que os presentamos, hemos resumido los principales pasos dados durante el curso, así como los compromisos que asumimos los colegios participantes y las propuestas de mejora dirigidas al Ayuntamiento.

¡Esperamos que sea de vuestro agrado!



# ZER EGIN DUGU eta ZER IKASI DUGU?

Kultur aniztasunaren gaia lantzeko, lehenik eta behin, gai honetara hurbiltzeko eta sentikortzeko jarduerak antolatu genituen. Ondoren, ikastetxe bakoitza zein egoeretan dagoen aztertu genuen eta zertan hobetu behar dugun ikusi genuen. Otsailean gure hiriaren egoeraren azterketari ekion genion (asmo horrekin, kale-ikerketa ezberdinak egiteko irteera eta bisita gidatuak antolatu genituen). Amaitzeko, apirilaren 18 eta 19an Eskolako Agenda 21en parte hartzen dugun Donostiako ikastetxeen arteko topaketak antolatu genituen, egindako lana laburbiltzeko, ikastetxeek kultur aniztasunari dagokionez hartu ditugun konpromisoak adosteko eta bide batez, Udalari zuzendutako proposamenak zehazteko.

Hona hemen aurreko pausoak burutzeko egin ditugun jarduerak:

- Gure ikastetxeko kasu zehatzak aztertu ditugu, ikasleen artean beste herrialde batetik Donostiara bizitzera etorritako gurasoen edo familiarren egoeretara gerturatzeko.
- Gure abizen ezberdinak aztertuz, zuhaitz genealogikoa osatu dugu, gure familiek ere jatorri anitza dutela baieztatuz.
- Munduko kultura ezberdinetan zein motatako jolasak dauden ikusi ahal izan dugu eta horietako zenbait joko egin ditugu. Jolas ezberdinak ezagutzeaz gain, munduko herrialde ezberdinetako hizkuntza, musika-tresnak eta abestiak, janzkerari buruzko ohiturak, elikadurari buruzko ezaugarriak eta bestelako ohituretara ere hurbiltzeko aukera izan dugu ekintza ezberdinen bidez.
- Kultura aniztasunaren aldeko jaialdiak ospatu ditugu zenbait ikastetxetan edo eskoletako ohiko agendan kokatzen diren jaialdi edo ospakizunetan ikasturte honetako gaia barneratu dugu.
- Kultura, jatorri edo arraza ezberdinetako jendearekin ditugun aurreiritzien zein estereotipoen inguruko gogoeta egin dugu eta aurreiritziei aurre egiteko moduak ikasi ditugu.
- Giza-eskubideen adierazpen unibertsala aztertu dugu eta mundu mailan eskubide ezberdinen inguruan dauden urraketez jabetu gara.
- Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak aztertu eta ezagutzera eman ditugu (mundu mailako Agenda 2030 izeneko dokumentuan jasota daudenak) eta UNESCOri 18.a barneratzeko proposamena luzatu genion; hau da, hizkuntza eta kultura aniztasunaren aldeko helburua.
- Elkarte ezberdinek kultura aniztasunaren gaian egiten duten lana gertutik ezagutzeko aukera izan dugu (gure ikastetxera etorri direlako edo gu beraien elkartera gerturatu garelako); Emaús Fundazioa eta kulturen arteko “Besarkadak” egitasmoa, adibidez.
- Udalak erraztutako datuetatik abiatuz, Donostiako kultura aniztasunari




A la hora de trabajar la diversidad cultural, el primer paso consistió en organizar actividades para acercarnos al tema y sensibilizarnos. Después estudiamos la situación de partida del colegio y tras analizar las conclusiones, vimos en qué debemos mejorar. En febrero comenzamos a realizar actividades para conocer la realidad de la ciudad y para ello organizamos distintas salidas y visitas guiadas. Para finalizar, en los encuentros organizados el 18 y 19 de abril entre los colegios que participamos en la Agenda 21 Escolar de Donostia, acordamos el conjunto de compromisos que asumimos sobre diversidad cultural y el listado de propuestas de mejora sobre dicho tema dirigidas al Ayuntamiento.

A continuación, resumimos los pasos dados en cada una de las fases:

- Actividades para conocer y acercarnos a la realidad de las familias del alumnado que provienen de otros países y así conocer mejor sus culturas.
- Gracias al análisis de nuestros apellidos, hemos formado nuestros árboles genealógicos y hemos podido comprobar que el origen de nuestras familias también es diverso.



## ¿QUÉ HEMOS HECHO? Y ¿QUÉ HEMOS APRENDIDO?

- Actividades para conocer y aprender los juegos, los idiomas, los instrumentos y las canciones, las costumbres a la hora de vestirse, la gastronomía, etc. Gracias a todas estas actividades nos hemos acercado a muchas culturas del mundo.
- Organización de festivales a favor de la diversidad cultural en los colegios ó inclusión de la diversidad cultural en los festivales o celebraciones que se organizan a lo largo del curso.
- Reflexión sobre los estereotipos y prejuicios existentes en la sociedad actual y medidas para hacer frente a los mismos.
- Estudio de los derechos recogidos en la Declaración Universal de los Derechos Humanos y toma de conciencia sobre las violaciones de muchos de dichos derechos que suceden también hoy en día.
- Análisis de los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (objetivos incluidos en el documento Agenda 2030) y propuesta a la UNESCO para incluir un objetivo adicional (el decimooctavo); objetivo a favor de la diversidad cultural.



buruzko informazioa landu dugu geletan, hiriko egoera aztertzera irten aurretik egoera ondo ezagutzeko. Ondoren, hiriko diagnostikoa lantzeko honako ekintzak egin ditugu:

- Auzo ezberdinetan, herritarrei eta merkatariei inkestak egin dizkiegu.
- Hiriko ondare nahiz paisaia kulturala gertutik ezagutzeko eta babesteko garrantziaz jabetzeko asmoz, ondorengo irteerak gauzatu ditugu: Áncora elkarteak antolatutako “Galdu genuen hiria” erakusketa bisitatzea, Altzako Historia Mintegiarekin batera, auzoko baserriak eta bestelako eraikuntza interesgarriak (fabrikak, …) ezagutzea, Lantxabe auzo-elkartearen eskutik, Aieteko Katxola baserrira bisitak, Antigua eta Igarako paisaia kulturala ezagutzeko irteerak, Bidebieta auzoan zehar irteera, Udaleko kultura aniztasuneko teknikariari elkarrizketak, Udaleko arkitekto-taldeko teknikarietako bati hiriko kultur ondareari buruzko elkarrizketa egitea, eta abar.

– Ikasturtean zehar egindako lana eskola-komunitateari ezagutzera eman asmoz, komunikazio-ekintza ezberdinak egin ditugu: buletin elektronikoak, irratsaioak, horma-irudiak, Txoko Berdean informazioa, erakusketak, eta abar.

– Kultura aniztasunari buruzko lehiaketa antolatzea.

– Aurreko ikasturteetan landutako gaiak ez ahazteko asmoz, konpromiso ezberdinen berrikuspena egin dugu (mugikortasun jasangarria, ura, hondakinak, etab.).







– Hemos tenido la oportunidad de conocer el trabajo que muchas asociaciones realizan en torno a la diversidad cultural, bien porque se han acercado a nuestro colegio o bien porque hemos acudido a los locales o establecimientos de dichas asociaciones por ejemplo, el programa “Besarkadak” sobre multiculturalidad de la Fundación Emaús).

– Partiendo de los datos facilitados por el Ayuntamiento, hemos analizado la información existente sobre distintos aspectos de la diversidad cultural de Donostia-San Sebastián, para así conocer bien la situación de partida. Tras dar ese paso, realizamos las siguientes actividades:

- Realización de encuestas a la ciudadanía en general, al sector comercial, etc.
- Salidas de campo y visitas guiadas a elementos del paisaje cultural de la ciudad para conocer sus características y entender la importancia de su protección: visita a la exposición “La ciudad que perdimos” organizada por la asociación Áncora, recorrido guiado por Altza de la mano de Altzako Historia Mintegia, visitas al caserío Katxola de Aiete de la mano de la asociación Lantxabe, recorridos guiados por los barrios de Antiguo-Igara y Bidebieta, entrevistas a la técnica de diversidad cultural del Ayuntamiento y a uno de los arquitectos municipales en relación al patrimonio cultural de la ciudad, etc.

– Organización de distintas actividades de difusión a la comunidad educativa para dar a conocer lo que hemos aprendido a lo largo del curso: boletines electrónicos, entrevistas en el programa de radio escolar, exposiciones, murales, información en el Txoko Berdea del colegio, etc.

– Organización del concurso interescolar sobre diversidad cultural.

– Revisión de los compromisos adquiridos en cursos anteriores para así no olvidar lo aprendido sobre otros temas ambientales (movilidad sostenible, el agua, los residuos, etc.).







# ESKOLEK HARTUTAKO KONPROMISOAK

ESKOLARTEKO FOROETAN PARTE HARTU GENUEN IKASLEOK GURE GAIN HARTZEKO PREST GAUDEN KONPROMISO UGARI AURKEZTU ETA GERO, KONPROMISOEN ZERRENDA OSOTIK ADOSTASUN HANDIENA LORTU ZUTENAK ONDORENGOAK DIRA

1 Donostiara beste herrialde batetik etorritako migratzaileei gure kultura ezagutzera emateko eta integratzen laguntzeko ekintzak antolatuko ditugu edo gure auzoan antolatzen diren kultura aniztasunari buruzko jardueretan parte hartuko dugu.

2 Ikastetxetik bertatik ikasle etorkinei eta euren familiei laguntza eskainiko diegu:

- “Ongi etorri eskolara” programa bultzatuko dugu.
- Hizkuntza ikasteko dauden aukerak azalduz, euskarara hurbiltzea erraztuz.
- Etxean bezala sentiarazteko jarduerak aurrera eramanez.
- Ikastetxeetako taldeetan harremanak eta aniztasuna bermatuz.
- Gure kulturaren ezaugarriak zabalduz.

3 Etorkinenganako errespetuzko jarrerak bultzatuko ditugu eta ezberdintasunak zainduko ditugu:

- Aurreiritziak eta estereotipoak albo batera utziko ditugu.
- Pentsaera, jarrera eta txiste arrazista edo matxistak salatuko ditugu.
- Ez dugu inor bere jatorriagatik alboratuko.
- Pertsonak ezagutzen eta horiengana hurbiltzeko pausoak emango ditugu.



# COMPROMISOS DE LOS COLEGIOS

*EN LOS FOROS INTERESCOLARES PRESENTAMOS LOS COMPROMISOS QUE ESTAMOS DISPUESTOS Y DISPUESTAS A ASUMIR Y POSTERIORMENTE PRIORIZAMOS LOS QUE OBTUVIERON UN MAYOR CONSENSO.*





1 Organizamos actividades para dar a conocer nuestra cultura y ayudar a integrarse a las personas que viene a vivir a Donostia-San Sebastián de otros países o participaremos en las actividades organizadas en nuestro barrio para promover la diversidad cultural.

2 Ayudaremos al alumnado y a las familias del alumnado migrante desde el propio centro escolar:

- Impulsaremos el programa “Ongi etorri eskolara”.
- Les acercaremos al euskera, explicando las oportunidades que tienen para aprender nuestra lengua.
- Organizaremos actividades para que se sientan como en casa.
- Garantizaremos las relaciones y la diversidad en los grupos del colegio.
- Difundiremos las características de nuestra cultura.





4 Ikastetxeetako aniztasunaren inguruko ekintzak antolatuko ditugu (hitzaldiak, tailerrak, azokak, eta abar), kultura ezberdinen errealitateak nahiz ezaugarriak transmititzeko eta kultura aniztasunaren garrantziaz jabetzeko.

5 Errefuxiatuen aldeko ekintzen antolaketan lagunduko dugu.

6 Emakumeek kultura ezberdinetan izan duten eta oraindik duten garrantzia ezagutzera emango dugu.

7 Hirugarren adinekoak beren beharrekin lagunduko ditugu eta euren bizipenetatik ikasteko interesa agertuko dugu.







3 Promoveremos actitudes de respeto a las personas inmigrantes y respetaremos las diferencias:

- Dejaremos de lado los estereotipos y los prejuicios.
- Denunciaremos los pensamientos, las actitudes y los chistes racistas y machistas.
- No marginaremos a nadie por su origen.
- Conoceremos a las personas y daremos pasos para acercarnos a ellas.

4 Organizaremos en el colegio actividades a favor de la diversidad (charlas, talleres, ferias, etc.) con objeto de transmitir las características de las distintas culturas así como la importancia de la diversidad cultural.

5 Ayudaremos en la organización de acciones a favor de las personas refugiadas.

6 Daremos a conocer la importancia de las mujeres en las distintas culturas (a lo largo de la historia y también hoy en día).

7 Ayudaremos a las personas de la 3ª edad y mostraremos interés en adquirir conocimientos partiendo de sus vivencias y de su experiencia.









# ZER PROPOSATZEN DIOGU UDALARI?

## ¿QUÉ LE SOLICITAMOS AL AYUNTAMIENTO?

1 Hirira etorritako pertsonen bizitza hobetzen saiatzea:

- Euskara ikasteko laguntzak indartzea eta beharrezkoa bada, doakotasuna bultzatzea.
- Etxebizitza, hezkuntza-zentroa, lana lortzeko aukerak, etab. bilatzen laguntzea.
- Harrera-plana hobetzea (ikastetxeetan itzulpen-zerbitzua indartzea, Hizkuntza Indartzeko Irakasleak ikastetxe guztietan egotea bultzatzea, ikasleen euskalduntzea sustatzeko).

2 Donostian dauden kultura ezberdinen ezagutza eta kulturartekotasuna sustatzeko ekintzak antolatzen jarraitzea (ikastetxeetan, auzo ezberdinetan, hirigunean):

- Kulturen arteko truke-egunak (horiek ere auzoetara zabaltzea).
- Errefuxiatuen aldeko ekintzak (errefuxiatu gehiagori harrera egitea eta baliabideak eskaintzea, adibidez).
- Haur eta gazteentzako kontzientziazio-jarduerak.
- Kulturartekotasunaren aldeko jaialdiak, azokak, lasterketak.
- Musika, gastronomia, ohituren erakustaldiak, tailerrak, hitzaldiak.
- Etorkinen historiak ezagutzeko solasaldiak.
- Donostiako kultur agendan kultura aniztasuna hobe lantzea (Aste Nagusiko egitarauan, esaterako).

3 Herritar guztiei giza-eskubideak ezagutzera emateko eta guztiok horiek errespetatu eta babestearen garrantziaz jabetzeko ekintzak antolatzea.



1 Tratar de mejorar la vida de las personas que vienen a vivir a la ciudad:

- Reforzar las ayudas dirigidas a aprender euskera y cuando sea necesario, promover su gratuidad Euskara.
- Apoyarles a la hora de buscar vivienda, centros escolar, oportunidades laborales, etc.
- Mejorar el plan de acogida (mejorar el servicio de traducción en los colegios, impulso de la figura del profesorado de refuerzo lingüístico en todos los centros educativos para promover la euskaldunización del alumnado).

2 Continuar con la organización de acciones dirigidas a conocer distintas culturas y promover la interculturalidad (acciones organizadas en los colegios, en distintos barrios, en el centro de la ciudad, etc.):

- Días de intercambios entre culturas (también en los barrios).
- Acciones a favor de las personas refugiadas (acoger a más personas refugiadas y ofrecerles recursos, etc.).
- Actividades de concienciación dirigidos a la población infantil y la juventud.
- Festivales, ferias, carreras, etc. a favor de la interculturalidad.
- Música, gastronomía, muestras de costumbres ligadas a otras culturas, talleres, charlas, …
- Conversaciones entre culturas, a fin de conocer las historias de las personas migrantes.
- Trabajar mejor el tema de la diversidad cultural dentro de la agenda cultural de Donostia (por ejemplo en la programación de la Semana Grande).

3 Organizar actuaciones para dar a conocer a toda la ciudadanía qué son los derechos humanos y llevar a cabo actividades dirigidas a promover el respeto y la defensa de dichos derechos.

# kultur aniztasuna



4 Kultur Aniztasuneko Plana eta Arrazakeriaren Aurkako Plana lantzea, ekintza eta aurrekontu zehatzekin.

5 Eraikitako Hiri-ondarea Babesteko Plana aldian-aldian berrikustea eta eguneratzea.

6 Hiri-berriztapeneko lanetan eraikinaren balio arkitektonikoa edo/eta kulturala ere babestu beharreko irizpide moduan hartzea (eraginkortasun energetikoa handitzeko egitean diren berriztatze-lanetan irizpide hori ere aintzat hartzea eta ingurumen babesa eta ondarearen babesaren arteko oreka bilatzea).

7 Hirian oraingoz eraitsi ez den ondare kulturala ezagutzera emateko eta eraginkorki babesteko ekintzak antolatzen dituzten elkarteekin Udalak hartu-eman handiagoa izateko bideak martxan jartzea (Áncora elkartea, Lantxabe auzo-elkartea, Altzako Historia Mintegia, Uliako Lore Baratzak, Aranzadi, etab.).

8 Babestutako hiri-ondare eraikia ezagutaraztea eta seinaleztatzea (informazio-panelak, eta abar.).

9 Kultur aniztasunaren eta aniztasun naturalaren alde lan egiten duten hiriko elkarteei sostengua ematen jarraitzea.

10 Udaleko klima-aldaketaren aurkako estrategian klima-aldaketaren ondorioek eraginda beraien herrialdeetatik alde egiteko beharra izan duten eta Donostiara bizitzera etorri diren etorkinen egoera barneratzeko aukera aztertzeamakina horietan elikagai osasuntsuak salgai jartzeko aukerak aztertzeko.

4 Trabajar el Plan de Diversidad Cultural y el Plan de Lucha contra el Racismo que incluye acciones con presupuestos concretos.

5 Revisar y actualizar periódicamente el Plan de Protección del Patrimonio Urbano.

6 Contemplar el valor arquitectónico ó/y cultural como de uno de los criterios a seguir a la hora de realizar intervenciones en los edificios de la ciudad (establecer ese criterio también en las actuaciones urbanas relacionadas con eficiencia energética y lograr un equilibrio entre la defensa del medio ambiente y la defensa del patrimonio construido).

7 Poner en marcha actuaciones dirigidas a estrechar la relación entre el Ayuntamiento y las asociaciones que desarrollan actividades para defender y dar a conocer el patrimonio cultural y el paisaje cultural de la ciudad (asociación Áncora, Lantxabe auzo-elkartea, Altzako Historia Mintegia, Parque de Viveros de Ulia, asociación de ciencias Aranzadi, etc.).

8 Difundir y señalizar el patrimonio protegido de la ciudad mediante paneles informativos, etc.

9 Continuar apoyando a las asociaciones y entidades que trabajan en defensa de la diversidad cultural y de la biodiversidad.

10 Estudiar la posibilidad de incluir en la estrategia municipal contra el cambio climático la realidad de aquellas personas que debido a factores climáticos se ven obligadas a abandonar sus países de origen y migrar a nuestra ciudad.








Hau izan da ikasturte honetan zehar, Eskolako Agenda 21en baitan, guztion parte-hartzeari esker egin dugun lanaren laburpena.

Mila esker guztioi agertutako interesarengatik eta gure proposamenak aurkezteko eman diguzuen aukerarengatik!

Este es el resumen del trabajo realizado durante este curso gracias a la participación de todos y de todas dentro de la Agenda 21 Escolar.

¡Eskerrik asko por el interés mostrado y por darnos la oportunidad de presentar nuestras propuestas!